



LAUDIOK EUROPAKO BEIRAREN ERREFERENTE IZAN NAHI DU

Laudio busca convertirse en el referente europeo del vidrio


BAUTISTA
 MUEBLES Y DECORACIÓN
shopping days
BAUTISTA
 - **25%**
EN TODAS NUESTRAS SECCIONES
www.bautistamuebles.com

FUNERARIA
L A R R A Z
 E H O R Z T E T X E A
CADA PERSONA ES ÚNICA. SU DESPEDIDA, TAMBIÉN.
 Funeraria Larraz te ayuda a dar el mejor adiós a tus seres queridos.
 FUNERARIA LARRAZ EHORZTETXEA. SERVICIOS FUNERARIOS INTEGRALES EN ARABA Y BIZKAIA DESDE 1944
 Laudio: C/ José María, 36. Teléfono: 94 672 77 50
 Amurrio: Pol. Ind. Kalzadako A1. Teléfono: 94 672 77 50
 Arrigorriaga: C/ La Cruz, 1. Teléfono: 94 671 00 61
 Amorebieta: San Pedro, 26. Teléfono: 94 671 00 61
www.funerialarraz.com

 **mundiSalud**
 Clínica Dental
 Seguimos atendiendo con la mejor sonrisa
 Concertado con mutua y San Prudencio

AMURRIO
 C/ Iribxusi 4-6, bajo · 01470
945 891 469
LLODIO
 Avda. Zumalakarregi 3, bajo · 01400
946 721 927

Laudiok Europako beiraren erreferente izan nahi du

Beiraren teknologia eta berrikuntzarako ekosistema bat, beste prestakuntzagune bat eta MICE turismoa sustatzea aztertzen ari da gobernu-taldea



Laudio bizitzeko, ekiteko eta proiektu ekonomikoak garatzeko leku erakargarria izateaz gain, Europako beira-industriaren kontzentrazio gunerik garrantzitsuenetako bat ere bada. Udalerrriak, gaur egun, hiru beira-enpresa ditu, Guardian Glass, Guardian Automotive eta Vidrala, eta beira berreskuratzeko laugarren bat, Trabeira. Herriak elementu horren erreferente gisa kokatzeko duen potentzialaz jabetuta, eta industriak motor sozio-ekonomiko gisa duen garrantzia galtzen ari den testuinguru batean, gobernu-taldeak beste urrats bat egin du eta kokagunerako proiektu integral bat garatu du: Audio Glass Hub.

Eraldaketa eraginkorra eta bermeduna egiteko, hainbat eragileren arteko lan-eredu koordinatu eta kolaboratzaile baten bidez garatuko da proiektua, helize laukoitzekoa ere deitua. Proiektua tokiko gobernutik abiatzen da, eta dagoeneko Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin partekatu da, eta interesa erakutsi dute. Halaber, joan den uztailaren 9an, lehen lan-saio bat egin zen herriko eta inguruko beira-enpresa nagusiekin, proiektua aurkezteko, haien beharrak ezagutzeko eta parte-hartzea sustatzeko. Ondoren, erakundeek proiektuarekiko konpromisoa hartu zuten.

Ikerketa, prestakuntza eta turismoa

Laudio beiraren lurralde estrategikotzat hartzeko, gobernu-

taldeak hiru proiektu ditu buruan. Lehenengoan, sektoreari lotutako ikerketa eta berrikuntza-ekosistema bat martxan jartzea aurreikusten da. Helburua argia da: beira sektorearen europar ezagutza eta berrikuntza Laudion zentralizatzea, udalerrian bertan ikerketa eta testatzea bultzatzeko. Bigarren ekimenaren helburua herriko Lanbide Heziketa eta prestakuntza-espezializazioa indartzea da, hainbat sektoretan gradu eta ziklo berriak txertatuz eta beiraren sektoreko prestakuntza aitzindaria sartuz. Hirugarren eta azken proiektua MICE turismoari lotutako estrategia bat sortzean datza, beira leitmotiv gisa hartuta, eta jasangarritasunean eta industrian ardaztuta, "Laudio marka" sortzeko palanka gisa. Hori guztia tokiko turismo-planarekin bat etorritik.

Gainera, Laudio kokapen geografiko pribilegiatua du. Igarobidea da eta Arabako hiriburua eta Bilboko Portuga lotzen ditu. Hori dela eta, udalerria funtsezkoa da salgaien trafikorako. Industria handia du, eta enpresa liderrak eta munduko erreferenteak ditu bere sektoreetan (tubular industria, beira, etab.). Herriko beste atal erakargarrietako bat da landa-ingurune zabal eta aberatsa duela, hiri-inguruneekin ondo lotuta dagoena eta etorkizunean garatzeko aukera handiak dituena. Gainera, bere inguruko herrien buru ere bada, lanbide-heziketako prestakuntza-eskaintzaren kalitateagatik eta merkataritza eta zerbitzu-eskaintza aberatsa izateagatik.

Laudio busca convertirse en el referente europeo del vidrio

El equipo de gobierno estudia poner en marcha un ecosistema de tecnología e innovación del vidrio, otro espacio de formación y fomentar el turismo MICE

Llodio además de ser un lugar atractivo para vivir, emprender y desarrollar proyectos económicos, también es uno de los enclaves de concentración de industria del vidrio más importantes de Europa. El municipio cuenta en la actualidad con tres empresas vidrieras, Guardian Glass, Guardian Automotive y Vidrala, y con una cuarta de recuperación de vidrio, Trabeira. Conscientes del potencial que tiene la localidad para posicionarse como referente de este elemento, y en un contexto de pérdida de la importancia de la industria como motor socio-económico, el equipo de gobierno ha dado un paso más y desarrollado un proyecto integral para el enclave: Laudio Glass Hub.


A fin de realizar una transformación efectiva y con garantías, el proyecto se desarrollará a través de un modelo de trabajo coordinado y colaborativo entre distintos agentes, también denominado modelo cuádruple hélice. El proyecto, que parte del gobierno local, ya ha sido compartido con el Gobierno Vasco y Diputación Foral de Álava, quienes han mostrado su interés. El pasado 9 de julio se mantuvo una primera sesión de trabajo con las principales empresas vidrieras de la localidad, y también del entorno, para presentar el proyecto, conocer sus necesidades y fomentar su participación. Posteriormente, las distintas instituciones se comprometieron con el proyecto.

Investigación, formación y turismo

Para posicionar a Llodio como territorio estratégico del vidrio el equipo de gobierno ya tiene en mente tres proyectos: poner

en marcha un ecosistema de investigación e innovación vinculado al sector para centralizar el conocimiento y la innovación europea del sector del vidrio en Laudio, apoyando la investigación y el testeo en el propio municipio; reforzar la Formación Profesional y la especialización formativa en la localidad, incorporando nuevos grados y ciclos en diferentes sectores, e incluyendo de manera específica formación pionera en el sector del vidrio; y generar una estrategia vinculada al turismo MICE, con el vidrio como leitmotiv, y que se focalice en la sostenibilidad y la industria como palancas para generar “marca Laudio”. Todo ello de manera alineada con el Plan de Turismo local.

Además, Laudio, y Aiara en su conjunto, cuenta con una ubicación geográfica privilegiada, ya que es zona de paso y conecta la capital alavesa y el Puerto de Bilbao. Ello convierte al municipio en una zona clave para el tráfico de mercancías. Alberga una gran industria, con empresas líderes y referentes a nivel mundial en sus respectivos sectores (industria tubular, vidrio, etc.). Otro de los atractivos de la localidad es que dispone de un vasto y rico medio rural, bien conectado con los entornos urbanos y con amplias posibilidades para su desarrollo futuro. Y también es reconocido como cabecera para los pueblos de su entorno por la calidad de su oferta formativa de formación profesional y por contar con una rica oferta comercial y de servicios.



Laudiok Herriko eta Aldai plazetako merkatuetako salmenta-postuen oinarri berriak zehaztu ditu

Laudioko Udalak tradizio diren ostegunetako merkatuen salmenta-postuak, Herriko eta Aldai plazetan kokatzen direnak alegia, arautuko dituzten oinarriak zehaztu ditu. Administrazioak idatzitako dokumentuak jarduera arautuko du 2022tik 2026ra arte, biak barne. Hala, elikadura-postuen, tokiko nekazari eta ekoizleen postuen eta ekipamendu pertsonal eta etxeke postuen baldintzak jasotzen dira.

Horrez gain, Ander Añibarroren taldeak "Laudioko Hurbileko Merkatua" jarduera definitzen duten oinarriak ere jaso ditu. Bertan, bertako eta inguruko baseritarrek parte hartzen dute larunbatero, 09:30etik 14:00etara (Aldai plazan kokatzen da). Eskabideak irailaren 16ra arte aurkeztu ahal izango dira. Instanzia normalizatuaren bidez eskatu beharko dira, Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan (udaletxeko beheko solairuan), edo Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean zehaztutako beste moduetan. Eskaerekin batera, oinarrietan bildutako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

Laudio define las nuevas bases de los puestos de venta ambulante de los mercados de las plazas Herriko y Aldai

El Ayuntamiento de Laudio ya tiene definidas las bases que regularán los puestos de venta ambulante de los tradicionales mercados de los jueves, que se celebran en las plazas Herriko y Aldai. El documento que ha redactado la institución regulará la actividad desde el año 2022 y hasta el 2026, ambos inclusive. Así, quedan recogidas las condiciones de los puestos de alimentación, de agricultores y productores locales, y de equipamiento personal y del hogar.

Además, el equipo de Ander Añibarro también ha recogido las bases que definen la actividad del mercado "Laudioko Hurbileko Merkatua", en el que participan baseritarras locales y del entorno cada sábado de 9.30 a 14.00 horas (se ubica en la plaza Aldai). Las solicitudes podrán presentarse hasta el próximo 16 de septiembre. Deberán ser presentadas en instancia normalizada y en el Servicio de Atención a la Ciudadanía (planta baja) del Ayuntamiento de Laudio o en las formas especificadas en la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.





Laia Eskolak bosgarren urteurrena ospatuko du elkarrizketa mahai batekin eta emakumeen rap ikuskizun batekin

Laia Eskolak, Arabako Emakumeen Jabekuntza eta Berdintasunerako Eskolak, bosgarren urteurrena ospatuko du irailaren 11n Amurrioko Antzokian 11.00etatik 12.30era. Ramiro Gonzalez ahaldun nagusiak eta Encina Castresana Aiarako Kuadrillako presidentek egingo diote ongietorria. Jardunaldiak belaunaldien arteko elkarrizketa-mahai batekin jarraituko du. Bertan Begoña Etayo, aktibista feminista eta "La hora violeta" irakurketa klubaren koordinatzaileak, M^a Carmen Rodríguez, Gaubeako mediku eta "Laukia-Mujeres en acción" elkartearen ordezkariak, eta Paula Fernández, sare sozialetako "Body positive" aktibistak, hartuko dute parte.

Horrez gain, rap feminista ikuskizuna izango da. Euskadiko raperorik onenak parte hartuko dute. Hitzordua 13.00etatik 14.00etara izango da Juan Urrutia parkean.

Ekitaldira joan nahi dutenek autobus zerbitzua izango dute, eta gurasoek haurtzaindegi zerbitzua euren eskura izango dute. Zeinu interpretatzaile bat ere izango da topaketan.

Laia Eskola celebra su quinto aniversario con una mesa de diálogo y un espectáculo de rap femenino

Laia Eskola, la escuela para la Igualdad y el Empoderamiento de las Mujeres de Álava, celebrará el próximo 11 de septiembre su quinto aniversario en el Antzoki de Amurrio en horario de 11.00 a 12.30. La bienvenida correrá a cargo del diputado general, Ramiro González, y de la presidenta de la Cuadrilla de Ayala, Encina Castresana. La jornada continuará con una mesa de diálogo intergeneracional. Y en ella participarán Begoña Etayo, activista feminista y coordinadora de los clubes de lectura "La hora violeta", Mffi Carmen Rodríguez, médica de Valdegóvia y representante de la asociación Laukia-Mujeres en acción, y Paula Fernández, activista "body positive" en redes sociales.

Además, también habrá un espectáculo de rap feminista con las mejores raperas de Euskadi. La cita se desarrollará en horario de 13.00 a 14.00 en el parque Juan Urrutia.

Las personas que deseen asistir al acto contarán con un servicio de autobuses. El encuentro también contará con la presencia de un intérprete de signos. Y, además, habrá servicio de guardería.

Kuentame elkarteak mahai-inguru berria antolatu du

Kuentame elkarteak mahai-inguru berri bat antolatu du: "Berdintasuna pandemiaren garaian, nola eragiten digu gure egunerokoan emakume eta gizonoi?". Saioa irailaren 27an, astelehena, izango da 17.30ean Laudioko Kultur Etxean. Topaketa batez ere 50 urtetik gorako pertsonen zuzenduta badago ere, jarduera herritar guztiei irekita dago. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, deitu 649 468 699 telefonora edo bidali mezu elektronikoa asociacionkuentame@gmail.com helbidera.

Nuevo coloquio-debate de la asociación Kuentame

La asociación Kuentame ha programado un nuevo coloquio-debate: "Igualdad en tiempos de pandemia ¿Cómo nos está afectado en nuestro día a día a mujeres y hombres?". La sesión tendrá lugar el próximo 27 de septiembre, lunes, a las 17.30 horas en la Casa de Cultura de Laudio. Aunque el encuentro está dirigido principalmente a personas mayores de 50 años, la actividad está abierta a toda la ciudadanía. Para más información ponerse en contacto llamando al 649 468 699 o enviando un correo electrónico a asociacionkuentame@gmail.com.

Laudiok iturri bat jarri du Santa Krutz ermitan

Laudioko Udalak auzotarren eskaerari erantzun dio eta Santa Krutz ermitan iturri berri bat jarri du. Oinezkoek gehien erabiltzen duten herriko kokaguneetako bat da.

Llodio instala una fuente en la ermita de Santa Cruz

El Ayuntamiento de Llodio, y atendiendo a una demanda vecinal, ha instalado en la ermita de Santa Cruz una nueva fuente. Se trata de uno de los enclaves de la localidad más transitados por los viandantes.



Udala Bidezaretako eustorma konpontzen ari da

Laudioko Udala Bidezaretako euste-horma berreraikitzen eta sendotzen ari da, zehazki, Iza Ascensores S. L enpresaren instalazioen parean. Hormigoizko horma, Nerbioi ibaia bideratzeko dagoen harri-lubetaren gailur gisa erabiltzen dena, lekuz aldatu zen, eta gainazala (espaloia) eta beheko geruzak partzialki hondoratu ziren. Arazoaren zergatia aztertzeke, uztailean egitura ikuskatu zuten, mugimendua kontrolatzeko lekukoak jarri ziren eta hormaren eta zoladuraren arteko elkargunea zigilatu zuten.

Lanen esleipenduna den Bermeosolo S. A. enpresak mikropiloteen multzoa instalatu eta sistema hori lotuko duen habea eraiki du, harrizko hormaren zama murrizteko. Datozen egunetan bidegorria eta oinezkoen zoladura asfaltatuko dituzte, aipatutako espazioan zeuden bi farolak jarriko dituzte, eta argiztapena berrezarriko dute. Lanek 66.610,50 euroko aurrekontua izan dute (BEZa barne).

El Ayuntamiento está reparando el muro de contención de Bidezaretta

El Ayuntamiento de Laudio está reconstruyendo y consolidando el muro de contención que se ubica en Bidezaretta, concretamente, a la altura de las instalaciones de la empresa Iza Ascensores S. L. El muro de hormigón, que sirve de coronación a la escollera existente para encauzar el río Nervión, se había desplazado y producido un hundimiento parcial en la superficie (acera) y estratos inferiores. Para estudiar la causa del problema, en julio se inspeccionó la estructura desde su arranque, se colocaron testigos para controlar el movimiento y se selló el encuentro entre el muro y el pavimento.

La empresa Bermeosolo S. A, adjudicataria de los trabajos, ya ha instalado el conjunto de micropilotes y construido la viga que unirá el citado sistema y que servirá para reducir la carga que soporta el muro de piedra. En los próximos días ejecutarán el asfaltado del carril bici y del pavimento peatonal, colocarán las dos farolas que se asentaban en el citado espacio y restablecerán la instalación de alumbrado. Los trabajos han contado con un presupuesto de 66.610,50 euros (IVA incluido).

Gaueko lanak tren geltokia berrizatzeko

Joan den abuztuaren 30ean hasi ziren tren geltokia berrizatzeko lanak. Lanak egiteko ordutegia 00:00etatik 05:00etara luzatuko dela aurreikusita da, mantentze-lanetarako tartearekin bat etorritik. Udala pozik agertu da lanak dagoeneko hasiko direlako, eta alde zuzenetik barkamena eskatu du, lanek sor ditzaketan eragozpen eta zarategatik. Ahalik eta txikiak izatea espero dute.

Trabajos nocturnos para renovar la estación de tren

El pasado 30 de agosto arrancaron las obras de renovación de la estación de tren. La previsión de horario para la ejecución de las labores es de 00.00 a 05.00 horas, coincidiendo con la franja de mantenimiento. El Consistorio celebra el arranque de los trabajos a la vez que pide disculpas de antemano por las molestias y ruidos que los trabajos pudieran ocasionar, que esperen sean los mínimos.



YOGA
GOIZEKO 10:00TIK 13:30RA
PARTE HARTU PARKEAN
PARTICIPA EN SESIONES DE
10:00 A 13:00 EN EL
PARQUE

KICK BOXING
GOIZEKO 11:00TIK
UGARTEN ERAKUSTALDIA
EXHIBICIÓN EN UGARTE A
PARTIR DE LAS 11:00

CROSSFIT
POLIKIRODEGIAN, EGUN
OSOAN EUSKAL LEHIAKETA
COMPETICIÓN INDIVIDUAL Y
PAREJAS CON ATLETAS DE
TODA EUSKADI.
10:00-15:00, 17:00-20:00

INSCRIBETE AKOZAIARALDEA@GMAIL
INFORMAZIOA 667 521 542 JOSEBA



Julen Arriolabengoak irabazi du XXXI Laudio Saria Pablo Bilbao Memoriale

Laudiok bere kirol egutegiko klasiko bat hartu zuen: XXXI Laudio Saria Pablo Bilbao Memoriale, Laudioko Txirindulari Elkarteak antolatua. Rural Kutxako Julen Arriolabengoa arabarrak lortu zuen garaipena. Proba Euskaldun Txapelketarako baliagarria izan zen eta sub'23 eta elite mailako 180 kirolarik parte hartu zuten. Zumalakarregi etorbidean hasi eta Arraño kalean amaitu zen lasterketa. Txirindulariek 133 kilometroko ibilbideari aurre egin behar izan zioten, Garate mendateko lau igoera barne. Arabarrak Ivan Cobo (Lizarte) eta Calum Johnston (Caja Rural-RGA) gainditu zituen.

Julen Arriolabengoa se impone en la XXXI Laudio Saria Memorial Pablo Bilbao

Laudio acogió todo un clásico de su calendario deportivo: XXXI Laudio Saria Memorial Pablo Bilbao, organizada por la Sociedad Ciclista Llodiana. Quien logró llevarse la victoria fue el corredor alavés Julen Arriolabengoa, del Caja Rural. La prueba, valedera para el Torneo Euskaldun, contó con la participación de 180 deportistas, pertenecientes a las categorías sub'23 y elite. Con salida en la Avenida Zumalakarregi y meta en la cercana calle Arraño, los corredores tuvieron que hacer frente a 133 kilómetros de recorrido que incluían cuatro ascensiones al Alto de Garate. El de Álava superó a los ciclistas Iván Cobo (Lizarte) y Calum Johnston (Caja Rural-RGA).

Parte hartu Laudioko kirol- eta osasun-zentro pribatuek programatu dituzten ekitaldietan!

Laudioko kirol eta osasun zentro pribatuek indarrak batu dituzte berriro, Laudioko Udalaren laguntzarekin, eta herritarrak gonbidatu dituzte irailaren 11n antolatu dituzten ekitaldietan parte hartzera. Izena emateko 667 521 542 telefonora deitu edo akozaiaraldea@gmail.com emailera idatzi.

- 10.00etatik 13.30era, Lamuza parkean yoga egingo da. Euria egiten badu, Kasinora eramango da.
- 11.00etan Ugarten kick boxing modalitateen erakustaldia izango da.
- Egun osoan zehar, La Granjako kiroldegian, Laudio antolatutako lehen Cross Fit txapelketa egingo da. Euskadiko, Gaztela Mantxako, Madrilgo eta Bartzelonako 90 atleta inguru izango dira bertan. Txapelketaren faseak 10.00etan, 13.00etan, 17.00etan eta finala 20.00etan izango da.

¡Participa en los actos que han programado los centros deportivos y de salud privados de Laudio!

Los centros deportivos y de salud privados de Laudio vuelven a unir fuerzas e invitan al pueblo de Laudio a participar en los actos que han organizado el 11 de septiembre, con la colaboración del Ayuntamiento de Llodio. Las inscripciones se podrán realizar llamando al 667 521 542 o escribiendo a akozaiaraldea@gmail.com.

- De 10.00 a 13.30 horas en el parque Lamuza habrá yoga. En caso de lluvia, se trasladará al "Casino".
- A las 11.00 horas en Ugarte exhibición de diferentes modalidades de kick boxing.
- Durante toda la jornada en el Polideportivo de La Granja, se celebrará la primera competición de CrossFit organizada en Llodio. Asistirán cerca de 90 atletas de Euskadi, Castilla la Mancha, Madrid o Barcelona. Las fases de la competición se realizarán a las 10.00, 13.00, 17.00 y la final será a las 20.00 horas.

KULTURA/ CULTURA

Helduentzako irakurketa kluba Txani Rodríguez idazlearekin

Irakurketa kluba gaztelaniaz:
Urriak 4 (19:30etan), Azaroak 15 (19:30etan)
Irakurketa kluba euskeraz:
Urriak 25 (19:30etan), Azaroak 29 (19:30etan)

Beharrezkoa da izena ematea. Informazio gehiago eta erreserbak: Laudioko Udal Liburutegian Tlf: 944034960 edo hurrengo posta elektronikoa: liburutegia@ludio.eus

Club de lectura para adultos con la escritora Txani Rodríguez

Club de lectura en castellano:
4 de octubre a las 19:30, 15 de noviembre a las 19:30
Club de lectura en euskera: 25 de octubre:
a las 19:30, 29 de noviembre a las 19:30

Es necesario apuntarse con antelación. Información y reservas: En la Biblioteca Municipal en el tlf. 944034960 o en la dirección de e-mail: liburutegia@ludio.eus.

KULTUR UDA 2021

IRAILEKO 1. HAMABOSTALDIA 1ª QUINCENA DE SEPTIEMBRE

- 
Puro Relajo
 Irailak 3, ostirala / Viernes 3 de septiembre
 19:00 Lamuzako Frontoa / Frontón de Lamuza
- 
Idi-proba
 Irailak 4 (lar.) eta 5 (iga.) / 4 (sab.) y 5 (dom.) de septiembre
 21:00 Udal Probalekua / Probadero municipal.
 Antolatzailea/Organiza: Lauzadi
- 
Korterraza
 Labormetraiaren proiektzioa / Proyección de cortometrajes
 Irailak 4, larunbata / Sábado 4 de septiembre
 21:30 Aldai Plaza
- 
Kirola osasuna da
 Irailak 11, larunbata / Sábado 11 de septiembre
 10:00etatik aurrera hainbat lekutan
 Antolatzaileak: Laudieko kirolgozueak
 A partir de las 10:00 h, en diversos lugares
 Organizar: Centros deportivos de Laudio
- 
Glo Circo "Sacred"
 Dantza bertikala / Danza vertical
 Irailak 11, larunbata / Sábado 11 de septiembre
 22:00 Lamuzako Frontoa / Frontón de Lamuza

IRAILEKO 2. HAMABOSTALDIA 2ª QUINCENA DE SEPTIEMBRE

- 
Hxarkundia D.T.
 Irailak 18, larunbata / Sábado 18 de septiembre
 13:00 Latioorro (Plaza Untzueta)
- 
Eskobien Atzetik
 Irailak 18, larunbata / Sábado 18 de septiembre
 18:00 Latioorro (Plaza Untzueta)
- 
Molto Vivace Musika Elk.
 Irailak 18, larunbata / Sábado 18 de septiembre
 20:00 Latioorro (Plaza Untzueta)
- 
Mago Óscar Durán
 Irailak 24, ostirala / Viernes 24 de septiembre
 19:00 Alberto Acero
- 
Aukeran Dantza Konp.
 Irailak 25, larunbata / Sábado 25 de septiembre
 19:00 Herriko Plaza
- 
Agr. Musical S. Roke
 Irailak 24, igandea / Domingo 24 de septiembre
 13:00 Herriko Plaza

OHARRA: eurria izanez gero, Herriko Plaza eta Alberto Acero plazakoeiintzak Aldai plazara mugituko dira.
 NCTA: en caso de lluvia, las actividades programadas en la Herriko Plaza y plaza Alberto Acero se trasladarán a la plaza Aldai.



Kultur taupadak



QR kodea eskaneatu
 Escanea el código QR